




ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

14. Alea 1997ko Azaroa



ATXORROTX ONG-a COSTA MARFILI LAGUNDU GURAN

- INDUSTRIALDEKO PROIEKTUAREN LEHEN PAUSUAK
- ETXEKO ARDURAK TRUKATZEKO TAILERRAK
- JOSERRA ESKIBELI ELKARRIZKETA

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

JOSE RAMON ESKIBEL PAGALDAI

Muskulazio gelako arduraduna

1- Zenbat denbora daramazu kiroldegian?

Bi urte.

2- Zer egiten duzu bertan?

Mantenimentuko gimnasia eman eta muskulazio gelaz arduratu.

3- Noiz egoten da zabalik muskulazio gela?

Asteleheneretan 17'00etatik 21'00etara;
 asteartetik ostegunera 10'30etatik
 12'00etara eta 17'00etatik 21'00etara;
 ostiralean 10'30etatik 12'00etara eta
 17'00etatik 20'30etara; larunbatetan
 10'30etatik 12'30etara.

4- Zenbat balio du?

2500 pta. hileru, monitorearekin ibili ala ez.

5- Eta mantenimentuko gimnasia?

2500 pta. hileru, frontoi zaharrea ematen
 dut astelehen, astearte eta ostegunetan
 18'00etatik 19'00etara.

6- Zer egin behar da instalazioak erabiltzeko?

Niri edo Cirilori esan eta batez ere gogoia
 eduki.

7- Jende asko etortzen al da?

Berrogei inguru, baina jendea ez da konstantea.

8- Zein aparatu erabiltzen da gehien?

Denak erabiltzen dira orokorrean.

9- Zertan erabiltzen duzu zure aisialdia?


Mendira joaten naiz.

10- Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Diru gehiago gastatuko nuke.

11- Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?

Ondo, oso ondo dago, batzuk lan asko egiten duzuela iruditzen



ZE BARRI?

Argitaratzailea:

AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1.500 ale

"ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"

KALEKO IRITZIAK

Zer moduz apaiz berriarekin?

Kalean ibili gara apaiz berriari buruz galdezka eta denek esan digute oso jatorra dela, mezak ondo ematen dituela eta abar. Gainera badirudi herrian oso ondo integratu dela, kinto afarian ere izan baitzen.

Argazkian dauden emakumeak ere iritzi berekoak dira. Gainera astero joaten ei dira mezetara beraz, ondo jakingo dute apaizaren berri. Baina kartetan egitea ere asko gustatzen zaie hauei, guk behintzat gustora harrapatu genituen jokuan.

Ezkerretik eskumara: Juanita, Emilia, Christina, Juli, Paka (atzean), Gloria, Isabel, Elena, Maria eta Pakita.



Cuenta Joven
 de Caja Laboral
 El servicio
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren
 Kontu Gaztea.
 Zerbitzuetan
 osatuena.**

**CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA**



LEINTZ BAILARAKO JATETXEEN GIDA KALERATU DA AZKENEAN.

Debagunek, gure bailaran lan egiten duten erakunde ezberdinak batzen dituen elkarteak, bere "Euskara kartara!" kanpainaren aurkezpen ofiziala egin zuen joan zen hilaren amaieran Arrasaten. Bertan kanpainaren ardatza izango den Deba Garaiko Jatetxeen gida aurkeztu zuen.

Gida honetan, bailarako jatetxe gehienek (%95 inguru) zerrenda bat egin da, jatetxearen kokapena, kategoria edo etxeko espezialitatearen berri emanez. Eskoriatzan hiru jatetxe izan dira ekimen honetara batu direnak eta bide batez, euren kartak euskaratzeko konpromesua hartu dutenak.

Fitxa bakoitzean gainera, jaki goxo-goxoa prestatzeko errezeta ere ipini dute. Beraz, eskuratu beharreko gida dugu honakoa jan eta edan egoki non egin daitekeen jakiteko.

ETXEKO ARDURAK GIZON ETA EMAKUMEEN ARTEAN TRUKATZEKO TAILERRAK.

Etxeko lanek ez dute Sexurik: sukaldeko lanak, jostea, garbitzea kotxemekanika... eguneroko lanak dira, gizon eta emakumeen artean banatu behar direnak. Eskoriatzan tailer batzuk antolatu dira lan hauek ikasteko:

- Gizonezkoentzat:** Sukaldea
Josgintza-plantxa
Garbiketak
- Emakumezkoentzat** Aroztegia-pintura
Eletrizitatea
Iturgintza
Kotxeko mekanika

Tokia, Egunak-orduak: Kultur Etxean: astelehen eta asteazkena (6etatik-8'30arte). Urtarrilaren 8tik-Apirilaren 2arte

Matrikula epea, prezioa: Abenduaren 15etik-Urtarrilaren 8arte. - 4000pzta.

Matrikulatzeko tokia: Udaletxeko Gizarte Zerbitzuak- 714688

ESKORIATZARRAK SASOIAN, BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN.

Azaroaren 9an ospatu zen XXXIII. Behobia- Donostia maratoni erdian ordezkari polita izan genuen eskoriatzarrok. Eskoriatzar batek, Jesus Mari Belokik, hamargarren proba zuen honekin. Helmugara iristen lehen eskoriatzarra bera izan genuen gainera, lasterketa 952.postuan, 1:22:35 denborarekin amaituz.

Guztira hamar eskoriatzar izan ziren proban korrika egin zutenak, eta jakin dugunez, afarirenbat ordaindu beharra ere izango dute batorenbatzuk, izan ere, apustuak tartean direnean ez dago txantxetan ibiltzerik!. Hauexek dira eskoriatzarrek eginiko postu eta denborak:

Beloki Osinaga, Jesus Mari	952	1:22:35
Diaz de Gereñu, Mikel	2595	1:32:02
Kortazar Alkoz, Aitor	2597	1:32:05
Leturiaga Letona, Jon	3078	1:34:24
Errasti Ormazabal, Javi	4600	1:41:10
Ezpeleta Oregi, Alex	6344	1:48:36
Eraña Larrañaga, Iñigo	6927	1:51:06
Gabilondo Urtaza, Xabi	6932	1:51:07
Zabala Urrutia, Ander	8656	2:04:01
Iparragirre Guenetxea, Santi	8875	2:07:17



Eskoriatzar korrikalari batzuk lasterketa bukatu ondoren.



Argazkian ikusi dezakegu Santik nola bukatu zauen lasterketa

ATXORROTX ONG-a KOSTA MARFILI LAGUNTZEKO ASMOTAN

Eskoriatzako Atxorrotx ONGak “Jostunen tailer eskola koop.” proiektua bultzatu nahi du Bouake herrian (Costa de Marfilen). Proiektu honek bertako biztanleak beren kabuz bizitzea ahalbidetuko duenez, berau aurrera eramango balitz, hango garapen sozio ekonomikoan erabakiorra izango litzatekeela uste dute ekimen honen bultzatzaileek.

Txalo:

Gonzalo Gonzalez, eskoriatzarrok “Txalo” ezizenaz ezagutzen dugun gazte hau duela berrogei urte jaio zen Madrilan. Eskoriatzan zazpi urte egin zituen apaiz egin zen arte, gero Madrilerara bueltatu zen, eta hemendik Costa Marfilera. 8 Urte daramatza bertan txiroenei laguntza eskaintzen. Teologia eta magisteritzan lizentziatua da, baina zihurrenik askok parrokiako elizkizunetan ipintzen zuen alaitasunagatik gogoratuko duzue.

Atxorrotx ONG-ak lagundu nahi duen proiektu horretako kooperantea izango denez, Eskoriatzan izan dugu Costa Marfilen bizi duten egoeraren berri guri ematekoeta bide batez, gure laguntza zenbateraino behar duten azaltzeko: << Gobernuak geroz eta diru gutxiago du: industrian, heziketan, osasunean... gastatzeko. Horregatik, eguneroko ekonomia indartuz egin dezake aurrera herrialde honek>>.



Otsail inguruan hasi ziren Eskoriatzar batzuk elkartasunak bultzatuta, Atxorrotx ONG-a antolatzen eta hirugarren munduari laguntzeko bide ezberdinak aztertzen. Horrela, hiru edo bost bat milioiko gastuaz pare bat urtetan burutzeko moduko proiektu txiki bat aurrera eramatea erabaki zuten. Gainera, aukeratutako kooperanteak (herrialde txiroetan laguntzen diharduen pertsona),

Eskoriatzakoa edo hemen bizi izandakoa izan beharko zuen. Hori guztia kontutan izanda, Txalok Costa Marfiletik bidalitako proiektu bati laguntzea onartu zuten, hau da, “Josteko tailer eskola koop.” eraikitzea. Proiektu honekin herrialde horri dituen oinarrizko beharretan lagunduko litzaioke eta hau ONG-ak jarri zuen baldintzetako bat da.



Atxorrotxeko partaide batzuk..

Atxorrotx: <<Gure asmoa da, “Jostunen tailer eskola koop.” eraikitzeko dirulaguntza Eskoriatzarren artean lortzea >>.

Costa Marfilen jendea, 3.munduko beste herrialdeetan bezala, miseria gorrian bizi da. Gobernuak kanpo zorretan itota dago aspaldidanik eta nekez altxa dezake bururik gizartearen egoera hobetzeko, banketxeek kate motzean loturik baitaude: << gobernuak zor bat ordaintzeko kredituak eskatzen ditu eta ondorioz, zor haundiagoetan sartzen da. Gobernuak geroz eta diru gutxiago du: industrian, heziketan, osasunean... gastatzeko. Horregatik, eguneroko ekonomia indartuz soilik egin dezake herri honek aurrera eta prozesu ekonomiko honen ardatza emakumea da>>.

TOKI ALAI

Taberna
Tfnoa.: 714729

KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA



Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa fundazioa
fundación



Costa Marfil

Bouaken, Txalo dagoen herrian, emakumea da etxera-ko dirua lortzen duena: egurra nahiz barazkiak salduz, lurrak landuz edota josten arituz besteak beste. Beraz, josten jakitea oso lagungarria da beraientzat, arropak eskuz egitea erostea baino askozaz merkeagoa ateratzen zaielako. Horregatik Bouaken eskola ugari daude josten erakusten dutenak, baina eskola hauek garestiegiak dira eta askok ezin dituzte ordaindu.

Egoera hau ikusita, duela urte batzuk proiektu bat atera zen eskola horiek ordaintzea ezinezkoa zitzaizen emakumei josten erakusteko. Ikastaro hauetan beste eskoletan baino bost aldiz merkeago ikas daiteke josten. Kooperatiba eran funtzionatzeko asmoz sortu zen tailer hau, baina er-

biltzen dituzten lokalak irekiak izateak (beste ekintza batzuetarako ere erabiltzen baitira) proiektu kooperatibo hau asko mugatzen du. Izan ere, proiektu kooperatibo honek etorkizunean emaitza onak eskein ditzan beharrezkoa du azpiegitura egokia izatea. Horregatik proiektu hori gauzatzeko Atxorrotzek daukan asmoa hau da: Eskoriatzako herriaren elkartasunari esker, lur sail bat erosi eta bertan eraikin egoki bat egiteko dirulaguntza lortzea.

Lur sail honetan eraikin batzuk egingo lirateke. Alde batetik almanena, makinak gordetzeko, eta bestetik aire librean teilatu haundi bat eraikiko litzateke, josteko klaseak eman ahal izateko. Gainera, eraikin hauek kooperatiba eran funtzionatuko lukete. Irakasleek hilean 7000 pta. inguru irabazten dute orain, baina etekinak izan ahala hauen soldatak igo egingo dira maila egoki batera iritsi arte. Hemendik aurrera etekinak inbertitu egingo dituzte kooperatiban: inskripzio tasak jeitsiz, makinak erosiz edota beste tailer batzuk antolatuz. Beraz, gerora aukera asko eskeintzen dituen proiektua da, josten ikasteko tailerrez gain, tintatzeko tailerrak... antolatu baitaitezke.

Txalorentzat kooperatiba talde hauek erabakiorrak dira garapen sozioekonomikorako: <<Honi guztiari esker beren kabuz bizi ahal izango dira, beraz, proiektu hau prozesu kooperatibista izateaz gain heziketa prozesu bat ere bada neurri haundi batean proiektu hau. Nire ustez garapen ekonomikoaz heziketa prozesua bermatzea lortzen da eta honekin garapen soziala ematen da>>. Etorkizun oparoa eskeini dezakeen proiektua delako ere aukeratu zuten proiektu hau Atxorrotx-eko kideek.



Costa Marfil

proiektu hau Atxorrotx-eko kideek.

Beraz, beren asmoak betetzeko abendutik aurrera kanpainaren dibulgazioa egingo dute, alde batetik eskoriatzarrek proiektuaren berri izan dezaten, eta bestetik udaletxeak ere %0'7a ekimen honetara bideratu dezan. Izan ere, azpimarratu beharra dago proiektuarentzako dirulaguntza Eskoriatzako herriaren elkartasunari esker lortzea dela ONG-aren helburuetako bat.

Txalo eta Yosu Barandiaran azaroaren 13an eskeini zuten hitzaldian.



INDUSTRIALDEKO PROIEKTUAREN LEHEN URRATSAK.

Eskoriatzako udalak Almen azpian industrialde proiektu bat aurrera eramateko asmoa zeukala gauza jakina da. Horretarako, arau suzidiarioak egokitu, sektoreak aldatu... egin zituzten besteak beste. "Ideien leihaketa" bat ere antolatu zuten eta bertan, lau enpresak hartu zuten parte. Irabazlea Donostiako Toledo Taldea enpresa izan genuen, honek izan baitzituen industrialdea orokorrean antolatzeko ideiarik egokienak.

Orain, hurrengo pausua Plan partziala egitea izango da, non, sektorea osotasunean hartuz ordenatu egin beharko den. Plan partzial hau epe laburrean burutzekoa dela adierazi digute udaletxean, proiektuaz jarraitu aurretik derrigorrez egin behar den zerbait delako. Plan partziala bukatu ahala jakinaraziko digute bertan erabakitakoa.



MENDI MARTXA

Azaroaren 2an egin zen mendi bizikleta martxa 180 parteartzaile bildu ziren. 9'30etan irten ziren Eskoriatzako plazatik, bizikletaz ibiltzeko eguraldi atseginez. Iristen lehena Xabier Lazpiur izan zen eta herriko lehenak berriz, Jose frutos eta Sergio, bere semea, izan ziren. Martxa bukatu ondoren plazan antolatzailleek janari-edariak prestatu zituzten partehartzaileek indarrak berreskuratzeko. Denei kamiseta bana oparitu zieten eta bukatzeko kirol materialaren zozketa egin zuten.

DOMUSANTU EGUNA

Azaroaren 1ean, larunbata, lorez beteta zegoen kanposantua. Arratsaldean errosario orduan jende asko hurbildu zen. Urtean baino urtean lore sorta gehiago ikusten da hilobietan, era guztietako loreak gainera: domusantu lorak, larrosak, krabelinak... Baina gogoratu hauek kentzera ere joan egin behar dela, behin zimelduz gero kolore eder hori galdu egiten baitute.



UDAZKEN KULTURALA ARRAKASTATSU AURTEN ERE.

Eskoriatzako Kultur Etxeak, herriko hainbat kultur talderekin elkarlanean antolaturiko "Udazken Kulturala" aurrera doa apurka-apurka. Hala ere, hurrengo hamabost egunetan ere izango dugu makina bat kultur ekitaldiz gozatzeko aukera eta espero dezagun joan den astebukaeran izandako ipuin kontaketa, hitzaldi eta diapositiba emanaldiek izan zuten arrakastarekin jarraitzea. Adi egon beraz gure agendan datorrenaz: badago zer entzun, ikusi eta egina datozen asteetarako eta!.

BEKAK

- "Españako Bankuak", ekonomia ikerkuntzara-ko beka antolatu ditu. Epea: Urtarrilak 16.
- 1998-99 ikasturtean edo 1998ko udan atzerri-ko unibertsitateetan ikasketak burutzeko laguntzak emango dira. Esaterako: Austria, abenduak 30; Erresuma Batua, abenduak 30; Danimarka, urtarrilak 8; Belgika, Urtarrilak 14; Irlanda, urtarrilak 14; Portugal, otsailak 4; Alemania, urtarrilak 13; Frantzia, martxoak 6...

LANA

- Nafarroa Iparraldeko (Arano, Areso, Goizueta eta Leitza) Mankomunitateak, euskara teknikari bat behar du. Epea: abenduak 4.
- Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzuak, kardiologia sailerako espezialista bat behar du. Epea: abenduak 8.
- Barakaldoko Udalak, lanpostu batzuk bete nahi ditu: administrari orokorreko teknikaria, administrari laguntzailea, klarinete irakaslea, graduatu soziala, arkitektu teknikoak, artxibo eta liburutegiko hiru laguntzaile. Epea: EAOn argitaratu zain.
- Ordiziako Udalak, ATS eta gizarte eta kultura animatzailea. Epea: BOEn argitaratu zain.
- Sestaoko Udalerako, euskera irakasle laguntzailea eta liburutegiko laguntzailea. Epea: EAOn argitaratu zain.

LEHIAKETAK

- Gasteizko Udalak, "Don Pedro Anitua" III. enpresentzako ideia lehiaketa antolatu du, gazteei zuzendua. Epea: abenduak 15.
- Oñatiko Burdinako Kolektiboak antolatua, komiki lehiaketa; txuri beltzean eta ahal dela euskaraz. Epea: abenduak 19.
- Bilboko pop-rock lehiaketa. Sariak: CD bat grabatzea eta 300.000- 150.000 PTA bitarteko lau sari, eta 100.000PTAko 5 akzesit. Epea: abenduak 31.

PERKUSIO TAILERRA

Iñaki Bruñanaren eskutik. Hastapena eta sakontze mailak. Erritmo ezberdinak. Astelehenetan, 6etatik 9etara. Arrasateko Gazteluondo ikastolan. Informazio gehiago Arrasateko Gazte bulegoan.

JAIOTZAK

- Urriaren 27an, Jon Iñaki Izarcelaya Ugarte.
- Urriaren 30ean, Judith Jimenez Porcel.
- Azaroaren 5ean, Ainhoa Merino Merchar.
- Azaroaren 12an, Oskar Castillejo Ugalde.
- Azaroaren 12an, Irene Martin Benito
- Azaroaren 12an, Asier Zurutuza Perez de Eulate.

LIBURU GOMENDIOA.


IPIUIN GOGOANGARRIAK, ANTOLOGIA.

"Esnatu zenean, dinosaurua hantxe kieto zegoen artean" Augusto Monterrosoren ipuin hau ezagutzen den motzeta eta ezagunena ei da. Ipuin motza, benetan. Inaki Aldekoak gertatu duen edizio honetan, aitzitik, aukeratutako ipuinak ez dira Monterrosok idatzitakoak bezain motzak, baina badira ederrak. Bai hirixel! Hamabi ipuinlarik osatzen dute antologia: Dickens, Maupassant, Schwob, Txekhov, London, Joyce, Kafka, Borges, Cortázar, Calvino eta Singer. Ez daude ipuinlari guztiak, asko baitira. Baina daudenak, ederto asko irabazia dute antologia honetan beren lekutxoak. Ipuin guztiak onak dira, baina badaude banaka batzuk zoragarriak direnak. Apartekoak. Ez dakit zer behar duen ipuin on batek ona izateko: hasiera bukaera bezain ona izatea, anbiguitate puntu bat izatea, agian. Ez dakit. Baina jakin badakit, antologia honetako ipuinak irakurritz gero, espainetan geldituko zaizuen keinua ez zaizuela berehala desagertuko. Bestela, "Loveday jaunaren ateralditxo" ipuinarekin egin ezazu proba, edota, "Idunekoa"rekin, edota...

UDAZKEN KULTURALA.

EUSKARAREN ASTEA

- Azaroak 27, osteguna,** arratsaldeko 7etan Ipuin kontaketa. Kontalaria: Jose M^a Karrera
- Azaroak 29, larunbata,** arratsaldeko 5etan Pailasoak: Takolo Pirritx, eta Porrotx Tokia: Pilotalekuan arratsaldeko 8etan, Txikiteoa Gardokirekin, Txiste afaria. Tokia: Toki Alai Taberna
- Azaroak 30, igandea,** eguerdiko 1'15etan "Gorosarri dantza taldea" ren emanaldia
- Abenduak 12, ostirala,** arratsaldeko 7etan Diaporama: Ravier anaiak, 20 klasiko pirineoetan. Egilea: Joseba Ugalde Eraña Tokia: Kultur Etxea




- Abenduak 13, larunbata,** gaueko 10,30etan Jaialdia: Gari Tokia: Frontoia
- Abenduak 13, larunbata,** arratsaldeko 4'30etan Bideo emanaldia: Batman (euskaraz). Tokia: Luis Eceiza Ikastetxea.
- Abenduak 14, igandea,** goizeko 9etan plazatik, Mendi irteera Ibilaldia: Arlaban- Isuskitza- Landa

AZOKA:

- Renault 5 (SS-P)-a salgai. Deitu telefono hauetara: 779330-798135
- Irailetik aurrera neska bat pentsio osoan hatuko duen familia behar da. Ikaslea 797473

Ze Barri?n informaziorik argitaratu nahi baduzu, utzi Kultur Etxeko buzoian, Ze Barri?rako dela zehaztuz.





Izurrategitarren albunetik ateratako argazki hau aukeratu dugu hil honetan argazki zaharraren txoko honetarako. Zaharra da benetan argazki hau, 65 urte inguru izango dituen. Eraña auzoko Erañagoiti baserri ondoan dago aterata, eta goitik hasita ezkerretik eskumara: Juan, Eugenio eta Toribio ditugu. Beheko iladan berriz, Margari, Patxi (bere lehen jaunartzea zela eta dotore jantzita), Juli eta Ixidro anai arrebak ditugu.

**HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

LENIZ
ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

ESKO Sport



txandalak
zapatilak
mendiko botak
aerobic
futbola
txirrindua

Intxaurtxueta 5
20540 Eskoriatza
Tel. 71 52 96



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

**Zuri
Garbiketak**

Tfnoa-Faxa: 714845
ESKORIATZA

URRESTILLA

TABERNA

Tfnoa.: 714809

Giro ona berandurarte